



**KURSAAL**  
B MAILA

**ZURRIOLA HIRIBIDEA 1**



**Rafael Moneo, 1999.**

#### **Deskribapena**

Kursaalaren orubea gorabehera geografiko gisa ikusirik, Urumea ibaiaren bokalean geratu diren bi harkaitz handi gisa ulertzen dira kultura kompleksuaren bi pieza nagusiak: auditoriuma eta kongresu aretoa. Ez dira hiriaren parte, paisaiaren parte baizik. Auditoriuma eta kongresu aretoa soilik agertzen dira bolumen autonomo eta libre gisa. Auditoriumaren eta kongresu aretoaren masa kubikoen protagonismoak plataforma handi batean du sostengua, eta plataforma horretan biltzen dira erakusketa aretoak, bilera aretoak eta horien inguruko zerbitzuak. Lehen harkaitza handiak auditoriuma biltzen du; 60 x 48 x 27 metroko bolumen prismatikoa du, eta itsasoranzko inklinazio txiki batek dinamizatzen du. Eraikuntza hori metal egitura batekin konpondu da. Metal egitura horrek beira prentsaturako blokeekin kanpotik zein barrutik plementaturako horma bikoitz bat sortzen du. Konposizioari eta egiturari dagokionez, antzeko irizpideekin proiektatu da kongresu aretoa biltzen duen prisma. Prisma hori ere zertxobait inklinatuta dago, eta 42 x 36 x 24 metroko tamaina du.

#### **B mailako babes erregimen espezifikoak**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Handitzerik eta aldaketarik ez bi areto nagusietan eta atondoan.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.